












# KOSTUEN EGITURA

Gure proiektu aurrera eramateko hainbat kostuei aurre egingo beharko diegu.

Hasieran, ortua sortzeko, lantzeko eta kudeatzeko hainbat material lortu beharko ditugu, eta landatuko ditugun fruituak eta barazkiak aukeratzeko, institutuko jendeari bidali genion inprimakian oinarritu gara.

Lehenengo inbertsio bezala, haziak (tomateak, piperrak, lekak...), materialak (haitzurra, eskularruak...) eta lur zakuak erostea erabaki dugu. Gure baratzea landu aurretik, lehenengoz haziak ontzi batzuetan landatuko dira, eta haztean birlandaketa egingo da ortuko lurrara, horretarako lur-zakuak erosiko dira; eta ortuaren lurra aberasteko konposta egingo genuke bolondresak emandako material organikoarekin, lurra mineralak betetzeko:


<p>Haziak</p>	<p>Sagarrak=4.99€ Tomateak=1.60€ Marrubiak = 1.50€</p>    <p>Urazak = 1.25€ Lekak = 1.80€ Piperrak = 1.76€</p>   	<p>12.90€</p>
<p>Lur-zakuak</p>	<p>4.49€ x 5</p> 	<p>22.45€</p>

Materialak	<p><i>Haitzurra</i></p>  <p>11.87€ x 2</p> <p><i>Arrastelua</i></p>  <p>13.96€ x 2</p>	<p><i>Eskularruak</i></p>  <p>14.99€</p> <p><i>Garaztailua</i></p>  <p>6.30€ x 3</p>	85.55€
Kostu totala			120.90€

Gero, egitasmoa martxan dagoenean, beste kostu batzuei aurre egin beharko dizkiegu. Gure proiektuak ez dauka kostu finkorik, ez daukagu hilabetero ordaindu beharreko gastu zehatzik; lursailagatik ez dugu ordaindu behar, partehartzaileak bolondresak dira... Beraz gure funtzionamendurako kostu aldakorrak izango ditugu.

Zer?	Kostua
Ura (ortua ureztatzeko)	$225 \times 3 = 675\text{l} / 1000 \times 1.89 = 1,27\text{€} / \text{egunero eta } 1.27 \times 30 = 38.27 \text{€} / \text{hilabetero}$
Marketing	25€ (posterrak...)
Saltzeko ontziak	Kosturik gabekoak dira, birziklatuak izango baitziren

Kostu aldakor moduan, gure lursaila ureztatzeko, aurkitu dugun informazioaren arabera, m<sup>2</sup> bakoitzeko egunero 3 litro ura behar dira, eta gure ortuaren azalera 225m<sup>2</sup>-koa (15m\*15m) da, hori jakinda egunero 675 litro ur beharko genituzke, beraz, hilabetero 20.250l beharko genituzke. Hortaz, Espainian m<sup>3</sup> bakoitzeko (1000l) 1.89€ ordaintzen ditugu, beraz, hilabetero 38.27 € ordainduko genituzke. [ Uraren kostua=  $225 \times 3 = 675\text{l} / 1000 \times 1.89 = 1,27\text{€} / \text{egunero eta } 1.27 \times 30 = 38.27 \text{€} / \text{hilabetero}$  ].



Uraren gastuari dagokionez, aipatutako zenbatekoak gutxi gorabeherakoak dira; izan ere, gure klima euritsua dela eta, ez litzateke egunero ureztatu beharko. Horrek suposatuko zuen uretan aurreztuko genuela eta inguru horretako baliabide naturalak aprobetxatuko genituela gure proiektua gauzatzeko, eta, hala, ingurumena zaintzearekin lotutako helburuetako bat lortuz.



Beste kostu aldakor bat, hilero marketinean inbertituko dugun diru-kopurua izango zen. Ikasleen boluntario-lana eta jendearen erosketak bultzatzeko, hilabetearen arabera diru kantitate gutxiago edo gehiago jarriko genuke. Hasiera batean, gure proiektua sustatzeko hilabetero 25€ inguruko inbertsioa egingo genuke gure marketing-kanpainetan.

Beraz, aztertu ditugun datu guztien arabera, lan hau aurrera eramateko hasiera batean 170€ edo beharko genituzke, eta martxan doanean gutxi gorabeherako kostuak 50€-koak izango ziren. Diru kantitate hau ordaintzeko, gure institutuko beste proiektuekin eta saskien salmentekin kontaktzen dugu.